



**1000**  
**esker**  
**Zorionak**



# 1000esker 1000zapore



**Sortzaileak**



**Bilakaera**



**Euskalgintza**



**Bidelagunak**



**Argazkilariak**



**Sare sozialak**



**Durangaldetik  
harago**



**Tokiko instituzioak**



**Babesa**



**Anbotokideak**



**Tokikom**



**Ikasleak**



**Iragarleak**



**Transmisioa**



# 1.000 esker, 23 urte

ANBOTOK ale berezia kaleratu du, 1000. alea.  
23 urteko ibilbideak ondo merezi du ospakizuna

## Anboto DURANGALDEA

ANBOTO zenbaki borobileraren heldu da: 1000. alera. Bada arrazoi nahikoa Durangaldeko hedabidearen ibilbidea erreparatu eta aurrera begirako erronkez hausnartzeko.

Azaroaren 9an, ANBOTOK 23 urte egin zituen. Hamarkada bitik gorako bidean igarotako erreparazioa egiteko, ale monografiko hau kaleratu dugu. Momentu egokia da egindako ibilbidea erreparatu eta aurrean ditugun erronken aurrean hausnartzeko.

Papereko aleagaz hasi ginen eta webgunea gehitu genion jarraian. Mugikorraren erabi-

lerak eta sare sozialetan uneko informazioa lantzeraren eraman gaituzte, urteko 365 egunetan. Hau guzti hau eta etorriko direnak zuei eskerrak izango dira. Langile, banatzaile, irakurle, instituzio, sortzaile zein iragarle, mila esker denoi!

**HAMARKADA BITIK  
GORAKO BIDEAREN  
ERREPASOA EGITEKO,  
ALE MONOGRAFIKO  
HAU KALERATU DUGU**



## 1000 esker, Anboto

### Taberna

Ogitartekoak,  
merendolak...

07:00etatik 22:30era  
egunero

### Errota Ostatua

Logelak  
eta aterpetxea

[errotaostatua.eus](http://errotaostatua.eus)

### KirolErrota Gimnasioa

Muskulazio-gela,  
saunak, ikastaroak...

[kirolerrota.eus](http://kirolerrota.eus)

### Hezkuntza

BATXILERGOA

LANBIDE  
HEZIKETA

Haur Hezkuntzako  
Goi-mailako Zikloa

LANBIDE  
HEZIKETA

Gizarteratzeko  
Goi-mailako Zikloa

[ibaizabalikastola.eus](http://ibaizabalikastola.eus)

[Intxaurren kalea 54 DURANGO \(Bizkaia\)](https://www.google.com/maps)

946 215 877

[Idazkaritza@ibaizabalikastola.eus](mailto:Idazkaritza@ibaizabalikastola.eus)

Herrigintza sustatuz,  
informazioa euskaraz  
eta gertutik eskaintzen  
jarrai dezazula

ZORIONAK, ANBOTO!



Abadiño

Elizateko Udala



**Aritz Maldonado** DURANGO

Idurre Maortua Aiertzaguenazaldibartarra ANBOTOn sorzailleetariko bat eta lehenengo kudeatzailea izan zen. Gerora ere euskalgintzari lotuta jarraitu du, Ibaizabal Ikastolako zuzendari legez. Egun, Konfekoop Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko Errektore Batzordeko kidea da.

### Zelan gogoratu dituzu ANBOTOn sorrerako urteak?

Distantziak ematen duen nostalgia puntu horrek gauzak edertzeko joera ematen dizu, baina gogoan dut euskalgintzan egiteko asko zegoen garaia izan zela. Borondatezko funtzionamendu batetik gendozen Eraz aldizkari-tik, eta profesionalizazio baterutz gindoazen. Berbaro inguruan hasi zirenek oso presente zuten hori, egitura profesional baten beharra zegoela proiektuari oinarri sendo bat emateko, baztertu barik, jakina, borondatezko lanaren ekarpena. Horri garrantzi handia eman zitzaion hasieratik. Alde batetik, gauza asko egiteko zegoen garaia zen, baina, bestetik, indar handia zegoen Berbaron eta Berbaroren ingu-

ruan mugitzen ziren Eraz edo euskalgintzako egitura horretan.

Era berean, oso kontziente ginen orduko Eraz harek egina zuela ibilbide bat, baina eskualdean zuten eragina mugatua zela; harpidetza bidez funtzionatzen zuten, eta lehenengo kapako jendeak babesten zuten proiektua, baina Durangaldeak hori baino potentzial handiagoa zuela uste genuen. Gertuko erreferentziei begira hasi ginen orduan; adibidez, Goienaren kasuari, izan ere, eurek emana zuten harpidetzatik doakotasunerako jauzia, Din A4tik Din A3ra, eta egunkari- en paperera; baina, batez ere, kopuruari erreparatu genion. Askorengana ailegatzeak indarra eta sinesgarritasuna ematen dizkizu proiektu modura. Azken batean, hori bilatzen zen. Horrela gogoratzen dut garai hori. Ordura arte, beste kezka iturri bat erakunde publikoen babesaren. Erakundeen aldetik kezka bat zegoen horrelako proiektuen atzean zer egon zitekeen, eta zilegitasun hori irabaztea ere kostatu zen. Aitortza hori beste helburuetariko bat zen. Horrez gainera, jende baten artean ez

# "ANBOTO euskara normalizatzeko ezinbesteko tresna da"

**IDURRE MAORTUA AIARTZAGUENA** ANBOTOKO LEHENENGO KUDEATZAILEA

Idurre Maortua Aiertzaguenazaldibartarrak lehen lerroan bizi izan zituen ANBOTOn lehenengo urratsak; hain zuzen ere, bera izan zen lehenengo kudeatzailea

zegoen euskaraz irakurtzeko ohitura handirik; adibidez, nagusien artean, eta apustu bat egin zen irakurterraza izango zen ANBOTO bat kaleratzeko, eta hor, Xabier Amuriza buru,

oso lan polita egin zen. Astekari bat sekula euskaraz irakurri ez zuten jende bat konturatu zen posible zela euskaraz irakurtzea eta ulertzea. Batez ere, ilusio handia, indar handia eta talde

kohesionatu bat gogoratzen ditut, nahiz eta tentsio egoera batzuk ere izan genituen; aldaketei berezkoa diegu beldurra pertsonok, baina, orokorrean, gaurko begiradatik begiratuta oso egokitzat



## > anboto

**Gertuko Koop S.,**  
Gizarte Ekimenekoa

**Bixente Kapanaga, 9**  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

**Lege gordailua:**  
BI-2268/01  
**ISSN:**  
1578-7028  
**Tirada:**  
12.000 ale

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazioa:** Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso Armendia.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua





Idurre Maortua.

jotzen ditut urrats haiek. Ez dago zalantzarik egin beharreko urrats kualitatibo bat zela.

**Uste zenuen 1.000 alera helduko zela?**

Burua ez geneukan horretan.

Baina esango nuke gure inguruan zegoen jende batek bazuela buruan oso proiektu iraunkorra sortu behar zela. Eta oso pozgarria da hainbestearaino heldu dela ikustea.

**Baduzu oroitzapen konkreturik?**

Gauza askok markatu ninduten. Eskualdean aurkezpen asko egin genuen, eta horrek asko lagundu zidan Durangaldeko jende asko ezagutzeko. Gogoan dut,

adibidez, 'Txapel' eta biok Atxondoko alkatearengana joan gine-neko bat; guk oso landuta geneukan diskurtsoa, baina, gure harridurarako, alkateak ez zekien euskaraz. Oraindino gogoan ditut pasatu genituen estuasunak aurkezpena gaztelaniaz egiten. ANBOTOrako kanpainan indar handia egin zen, eta hori ere gogoan dut: bideoa sortu, eta oso kartel ezagunak ere egin genituen.

**Euskalgintzari lotuta jarraitu duzu. Eskola bat izan da ANBOTO?**

Poz itzela ematen dit ANBOTOK 1.000 ale kaleratu izana. Fun-tsezko tresna da Durangaldea ulertzeko, gure berriak gure hizkuntzan. Eta gure komunitatea saretu ere egiten du. Niri neuri, Ibaizabalen ibilita, bereziki pozgarria zait Ibaizabaleko ikasleen iritzi zutabeak-eta ikusten ditudanean, ikustea belau-naldi berriek zelan parte hartzen duten. Alde horretatik, balorazioa oso positiboa da. Bestalde, kez-kaz bizi dut bideragarritasun ekonomikoa eta lan baldintzak ez direlako lortu izan beharko liratekeenak. Alde horretatik, dei bat egin beharko litzaioke

Durangaldeko komunitateari Anbotokide egin eta euren ekar-pena egin dezan. Gauza horiek ere esan egin behar dira. Denok gustura jasotzen dugu ANBOTO barikuro etxean, eta era berean konpromiso hori eskatu egin behar dela uste dut, bideragarritasun ekonomikoa ere ziurragoa izan dadin. ANBOTO egunera-tuta dagoen komunikabide bat iruditzen zait, zenbait euskarri-tan ematen duelako Durangal-dearen berri, baina beharko luke ANBOToren komunitate zabal horren konpromiso zabalago bat, hau egunero ateratzeko konpro-misoa dutenak babesteko. Bes tela, juridikoki ere, iruditzen zait kooperatiba bazkidetza balitz, horrek ere lagunduko lukeela, Ikastolen eta Berbaroren kasuan gertatzen den moduan, adibidez. ANBOTO ezinbesteko tresna da euskara normalizatzeko.

**"IRAKURTERREZA IZANGO ZEN ANBOTO BATEN ALDE EGIN GENUEN XABIER AMURIZA BURU"**



# 1.000 ale Durangaldeko aktualitatea kontatzen

1.000 aletan ANBOTOk eskualdeko albisteen berri eman du 23 urteko ibilbidean. Hemerrotekan erreposoa eginda, honako berri hauek sailkatu ditugu urteotan idatzitako milioika albisteren artean

## J.G. DURANGALDEA

ANBOTOren lehenengo aleak 2001eko azaroaren 9an ikusi zuen argia. Eskualdeko euskara elkarten bultzadagaz, euskara hutsezko hedabidea martxan ipini zuten, barikuro zure postontzian jaso duzuna, irakurle. Egitasmoak bide horri jarraitu dio harrezkero. Horren ondoren, *anboto.org* webgunea heldu zen, 2003an. Astekaria eta orainkaria.

Mugikorraren erabilerak informazioa kontsumitzeko ohiturak aldatu ditu mundu guztian, gurean ere bai, eta ANBOTO aldaketa horietara egokitzen joan da. Gaur egun mugikorretatik dator hedabide honen Internet bidezko bisiten %84. Sare sozialak, esate baterako, ohiko lan tresnak dira gaur egun. Desinformazioaren eta albiste faltsuen gizartean inoiz baino beharrezkoagoa da kalitatezko informazioa eskuratzea.

## 23 urte informatzen

ANBOTOk 23 urte daramatza Durangaldeko albisteak lantzen. Hemerrotekaren erreposoa eginez, honako albiste hauek sailkatu ditugu. Urte hauetan guztietan zero kilometroa lantzen aritu gara bertatik bertara, eta aurrerantzean ere gertuko albisteak kontatzen jarraituko dugu.



## Tokikomen kide

ANBOTOren beste aurrerapausoetariko bat Tokikomen sorrera izan da. Tokiko euskarazko hedabideen bateraguneari eskerrak, ANBOTOk hobekuntza garrantzitsuak egin ditu Kudeaketa, ediziorako tresnak, inteligentzia artifizialari loturiko tresnak...

## 2001

**ANBOTOK BERE LEHENENGO ALEA KALERATU DU, HAINBAT ERAGILEREN BABESAGAZ**

## 2004

**PLATERUENA KAFE ANTZOKIA DURANGALDEKO KULTURAREN TOPALEKU**



## ALDEKOA-OTALORA iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA  
INDUSTRI MANTENTZEA

### ABADIÑO

Arzubia industrialdea 10 B,  
13-14 pabiloiak  
944 071 791 / 692 859 779

### IURRETA

Zubiaurre, 8  
946 202 768

Etixerik etxe,  
auzorik auzo  
Anbotok mila ale  
eta mila pauso  
Zorionak!

**Garage SAN MIGUEL** 

**1.000 ALE ETA MILA ZORION ANBOTÓ!**

Dantzari Auzunea, 8 IURRETA  
94 681 14 79 / 628 233 584  
[www.garajesanmigueldeiurreta.com](http://www.garajesanmigueldeiurreta.com)

Zorionak, Anboto Urte askotarako!

 **ARGOLABE**

Joxemiel Barandiaran 8A,1C 48200 Durango  
946814495 - 618068747 - 650397007  
[promotora@argolabe.eus](mailto:promotora@argolabe.eus)  
[www.promotoraargolabe.com](http://www.promotoraargolabe.com)





# 2005

**BOROAKO ZENTRALA MARTXAN DA ZORNOTZAN, PROTESTA ARTEAN**



# 2011

**ETAK BERE JARDUNA UTZI DU. M.C. HERNANDEZEN ETA IBON GARATEREN GOGOETAK**



# 2005

**SENAR OHIAK OFELIA HERNANDEZ HIL DU. ELKARRETARATZEA EGIN DUTE HILKETA MATXISTA SALATZEKO**

# 2008

**ABIADURA HANDIKO TRENAREN OBRAK HASI DITUZTE ABADIÑO-DURANGO ARTEAN**



**Zorionak, Anboto!**  
Jarraitu orain arte bezain fin!

**Olaburu, 3 - IURRETA**  
Tel.: 944 288 000  
[www.orobiogoiitiabhi.hezkuntza.net](http://www.orobiogoiitiabhi.hezkuntza.net)

Funded by the European Union

Zorionak, Anboto  
Biba zuek!

**UNAI GARAY**

ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA  
INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · [unaigaray@yahoo.es](mailto:unaigaray@yahoo.es)

Gure herria eta bihotza, Hezkuntza eta etorkizuna: elkarrekin hazten eta eraikitzen.

**MAIZTEGI**  
Herri Eskola  
**IURRETA**

**INSTITUTUA**  
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA-DURANGO

Frai Juan de Zumarragan,  
Euskara aho eta bihotzean!

1.000 ale euskaraz eta euskararen alde!  
Segi horrela, Anboto!



# 2014

**ARKAITZ BELLONEN  
HERIOTZAK  
DISPERTSIOAREN  
AURKAKO PROTESTAK  
ERAGIN DITU**



# 2020

**ZALDIBARKO  
ZABORTEGIA AMILDU  
DA. HONDAMENDIAN  
LANGILE BI HIL DIRA**



# 2018

**ENEKO SAGARDOYK GOYA SARIA  
IRABAZI DU 'HANDIA' PELIKULAN  
EGINDAKO LANAGAITIK**

# 2021

**OIHANA AZKORBEBEITIA  
KORRIKALARIA MUNDUKO  
TXAPELKETAN**



**ANBOTOK 1.000 ALE  
ZORIONAK DURANGOKO  
HERRIAREN IZENEAN!**



### 2020

COVID19AK ERAGINDAKO PANDEMIAREN ERAGINEZ KONFINAMENDU ETA NEURRI ZORROTZAK EZARRI DIRA

### 2021

JOSEBA SARRIONANDIA IDAZLEAREN ITZULERA IURRETARA



### 2024

GURUTZE FRADES TRIATLETA MUNDUKO IRONMAN TXAPELKETAN



### 2023

AITOR ELORDI PILOTARI MALLABITARRA BURUZ BURUKO TXAPELDUN



Zorionak, Anboto Biba zuek!

**ZAINDUZ**  
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu. Saio pertsonalizatuak dira, talde txikietan.

Trafalbarren 13, 4. blokea behea eskuma  
MATIENA-ABADIÑO  
944 657 132 - 686 906 374  
PSE: 119-13

**ALKI**  
Erreformak eta dekorazioa  
Bizitzeko espazioak sortzen ditugu.

alki@interioresalki.com / www.interioresalki.com  
Mikeldi kalea 6, 48200 Durango  
946 813 895 / 679 097 744

Zorionak, Anboto Urte askotarako!

**Binara Urreta Jainaga**

Oinetako patologiak  
Neurrira egindako plantillak  
Oinetako beste hainbat gaitz

1.000 ale eta mila zorion, Anboto!

Herriko gudarrien kalea, 10 behea  
**DURANGO**  
Tel.: 946 215 404

**Durangaldeko AEK**  
**Zorionak!**  
1.000 gehiago, baietz.



**Aritz Maldonado** DURANGO

Berbarok hasieratik parte hartu du ANBOTOren sorreran, eta Rakel Odiaga durangarra hasierako pauso horietatik egon da euskara elkartearen. Pello Zabarte Berbaroko kudeatzailea da eta bere bizitzan ANBOTO "beti" presente izan duela nabarmendu du.

**Zelan gogoratzen dituzue lehenengo pausoak?**

**Rakel Odiaga:** Hasierako pausoetan soldadu lana egin nuela dut gogoan, erretagoardiako lana. Gehiago gogoratzen naiz martxan ipini osteko elkarlanaz, gero ANBOTOren eta Berbaroren artean sortu eta garatu zen hartu-emanaz. Oroitzapenak hortik datoz, batez ere. ANBOTOk Durangoko Santa Anan zeukan bulegoa orduan, eta Berbarokoak Pinondon geunden. Sasoi hartan, nik hartu-eman handia nuen bulegoekoekin: Itziarregaz eta Idurregaz. Berbarotarrak aldizkaria ere hantxe maketatzeko zuten, eta hara joaten ginen, Asier maketatzailerearengana. Bulego hartaz ondo gogoratzen naiz, eta zer esanik ez hango kazetariez; familia bat ziren eta gu ere horren parte ginen. Gertutasun fisiko horrek beste arlo batzuetara ere eramaten gintuen. Sasoi batean, gabonetako bazkariak ere elkarregaz egin genituen, Plateruenean. Batez ere ibilbide bat dut gogoan. Gure bulegoaren ondoko bulego modura gogoratzen dut ANBOTOkoa. Esan dudan moduan, guretzat ohikoa zen Santa Ana zeharkatu eta haien bulegora joatea, eta horregaitik ezagutzen genuen hango dena, eta eurek gurea, jakina. ANBOTO Iurretara joan zenetik, telefonoz mantentzen dugu hartu-eman hori (barrez). Pentsa, buruz da kidan telefono bakarretarikoa da ANBOTOkoa! Konfiantzazko har-



Pello Zabarte eta Rakel Odiaga.

## "ANBOTO oso garrantzitsua da herrietako elkarteentzat"

**PELLO ZABARTE ETA RAKEL ODIAGA BERBAROKO KIDEAK**

Berbaro eta ANBOTO bidelagunak izan dira urte hauetan guztietan, eta elkarregaz parte hartu dute euskalgintzaren proiektu askotan; gaur egun ere hala jarraitzen dute

tu-emanan izaten jarraitzen du. Hari hori ez da eten.

**Imajinatzen zenuten 1.000. alera helduko zela?**

**R. O.:** Nik neuk bai. Argi izan behar dugu euskarazko aldizkari bakarra izaten jarraitzen dela gaur egun. Tristeia da 2003tik euskara hutsean egunkari edo aldizkari bakarra egotea. Baina bai, imajinatzen nuen. Beste 23 urtez ere imajinatzen dut.

**Zelan ikusten duzue Berbarok ANBOTOren moduko erreminta bat eskura izatea?**

**R. O.:** Nik neuk beharrezko ikusten dut, eta Berbaroren jardunerako babes bat dela ere esango nuke; ezinbestekoa dela.

**Pello Zabarte:** Beharrezkoa, eta zentzu batean baino gehiagotan, gainera. Euskara sustatzeaz gainera, ez da bakarrik eskualdeko gertakarien eta pertsonen berri

euskaraz ematen duen astekari bat. Beste hizkuntzetan ez dago ANBOTOren moduko astekaririk, milaka etxetara heltzen dena barikuro-barikuro, paperean, eta sakontasun maila horretan. ANBOTOk, gainera, euskaraz eta euskaratik egiten du. Herrietako elkarteentzat ere oso paper garrantzitsua jokatzeko du.

**Aurrera begira, zelako elkarlana egongo dela uste duzue?**

**P. Z.:** Nik beti ezagutu izan dut ANBOTO, ia jaiotze nintzenetik izan dudalako presente. Berbarotik ere oso hartu-eman ona igarri dut, hurbilekoa. Eta aliatu lez ulertzen dut, jakina; bai Berbaroren ekimenei zabalkunde ematen laguntzen duelako, baita hainbat espazio konpartitzen dugulako ere: Euskaraldia, Euskara Kontseilua, Korrika... Alde horretatik, hartu-eman naturala dago, eta aurrerantzean ere horrela irudikatzen dut. Komunikabideen jardunaz gainera, ANBOTOk herrigintzan eta euskalgintzan parte hartzen du, eta horri bere balioa eman behar zaio.

**R. O.:** Hartu-eman oso naturala da eta etorkizunean ez dut etenik ikusten, ezpada bien jardura bertan behera geratzen dela. Horrela jarraituko duela esan nuke; ez dut planteatzen bestelako egoerarik. GUKA sortu zenean, Berbaro eta ANBOTO egon ziren, adibidez.

**P. Z.:** Euskalgintzak hainbat erronka izan du betidanik, eta gizartearen aldatzearen doan neurrian berriak ere sortu zaizkio. Izan daiteke beste herrialdeetatik jende gehiago etortzea, edo digitalizazioak eragindako aldaketak izatea. Askotariko eragileen lana beharrezkoa izango da testuinguru horretan euskara indartzeko.

ARTEA SOINEAN  
@arteasoinen

20urte kamiseta munduan

6 5 8 7 5 6 5 2 2  
A G U R T Z A N E

**Ibaiondo**  
Ferreteria · Burdindegia

**Geriza**  
mantentze-lanak eta instalazioak

SARRAILGINTZA · ATEZAIN AUTOMATIKOAK · BIDEO ZAINZA

**KABA** **HIKVISION** **FERMAX**

ferreterialbalondo@gmail.com · Geltoki, 11 BERRIZ · 946 824 489



# "Enfokea pentsatzea da gaxena, zelan esan"

**MARKEL ONAINDIA TXABARRI** ANBOTOKO ZUTABEGILEA

ANBOTOKo kazetaria izan da urte askoan zehar, eta zutabegile ere badaramatza urte batzuk. Berak idatzitako zutabeak ANBOTOKo irakurrienetarikoa izaten dira

**Joseba Derteano** IURRETA

**Zeintzuk osagai behar ditu zutabe on batek?**

Zutabegile bakoitzak bere estiloa du. Nire kasuan, hiru alderdi kontuan hartzen ahalegintzen naiz. Batetik, kazetaritza ikuspegitik egindako gauza bat izatea; hau da, zerbaiten berri emateko asmoagaz egindakoa. Bestetik, istorio baten moduan kontatzea, bere hasiera, garapen eta amaieragaz. Azkenik, ikuspuntu pertsonala txertatzea, gertutasuna ematen diolako.

**Gaia aukeratzea gax egiten zaizu?**

Gaiak, berez, asko daude egunerokotasunean. Niretzat enfokea pentsatzea da gaxena, zer



Markel Onaindia, Anbotoko erredakzioan.

eta zelan esan. Jendeak irakurtzen duenean ekarpen berri modura ikusi dezala.

**Zein da enfoke egokiaren bila buruan bueltarik gehien eman diozun zutabea?**

Gehien landuriko testua lehenengo izan zela esango nuke, lantaldetik irten eta atal berrirako pauso hori zelako. ANBOTOGazko ardura bat sentitzen nuen eta gogoan dut ordu dezent eman nuela ordenadore aurrean. Jon Irazabalen testuagaz berdina gertatu zitzaidan. Bere inguruan idatzi gura nuen, baina ez nekien oso ondo nondik jo. Testu horri ere buelta batzuk eman nizkion, bai.

**Zutabea entregatu behar eta orria zuri. Inoiz gertatu zaizu?**

Ez. Nondik jo argi dudanean, orduan hasten naiz idazten. Normalean, pasealdian nabiltzean edo norabaitera noanean etortzen zaizkit ideiak; hau da, ez nabiltzean gauza zehatz batean zentratuta.

**Irakurleen feedbacka zelakoa da?**

Orokorrean, ona. Egia esanda, eskertzen da "irakurri dut eta gustatu zait" eta antzerakoak entzutea. Jakina, baliteke batzuei

ez gustatzea edo beste enfokeren bat eman niezaiokeela pentsatzea, baina normalean gauza txarrak ez ditugu esaten, hori ere egia da. Baina feedbacka ona izan da orain arte.

**Inoiz zentsuratu duzu zeure burua?**

Bai, baina ez iritzi txarrak jasotzeko arriskuagaitik, neure buruagaz gustura geratzeagaitik baino. Noiz edo noiz hartu dut bide bat, iritzi jakin batez, eta pentsatu: "Momentuko beroalditik aparte, gustura egongo naiz zutabe horregaz sei hilabete barru?". Horrek bai arduratzen nau.

**Zeri buruz idatzi gura zenuke, baina oraindik ez zaizu abagunerik sortu?**

Ez dut gairik pendiente. Pertsona bat bai badut buruan, hari buruz idazteko. Aurreko batean dudak egon nintzen idatzi ala ez. Momentuaren arabera izaten da.

**Desiorik 1.000 alea dela eta?**

ANBOTO beharrezko proiektua da Durangaldean. Bertako lurragaz eta izateko moduagaz gehien konektatzen gaituen hedabidea nire ustez, nortasun hori eraikitzeke funtsezko pieza.

Zorionak, Anboto!  
Jarraitu orain arte bezain fin!



pablo zubizarreta  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D - 48200 Durango  
pzubizarreta@gmail.com  
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963



94 681 49 99 - 688 878 252 - Durango



LANDAKO OPTIKA  
AUDIOLOGIA

Zorionak, Anboto  
Urte askotarako!



MUEBLES DE COCINA Y HOGAR  
**ARRIANDI**  
SUKALDE ETA ETXEEKO ALTZARIAK

santosarriandi.com

Urbitarate Industrialdea, 6 - 3.lokala  
48220 Abadiño  
Tel.: 946 202 656  
Mug.: 657 793 872  
abadiano@arriandi.com

Zorionak, Anboto!  
Jarraitu orain arte bezain fin!

1.000 ale eushara zabaltzen. Esherriñ asho eta zorionak, Anboto



BELARDENDA  
NATURALKI  
EKODENDA

Barrenkalea, 28 | 946 817 918 | naturalkibelardenda.es



# "ANBOTOri eskerrak une bereziak bizi izan ditut"

**LUCIA MERUELO ETA UNAI OLASO** ANBOTOKO ARGAZKILARIAK

Kamera eskuan dutela eta une bereziak harrapatzeko gogoz, horrela ibiltzen dira Meruelo eta Olaso Anbotoko argazkilariak eskualdeko herriko jaietan eta kirol ekitaldietan

**Maialen Zuazubiskar** ABADIÑO

**Kamera eskuan duzuela, asteburu askotan argazkiak ateratzen ibiltzen zarete *anboto.org* atarirako. Zuen zatzer zer suposatzen du horrek?**

**Lucia Meruelo:** Ikasteko eta nire buruari erronka bat ipintzeko modu bat da. Gainera, ANBOTOn hasi naizenetik jaso dudana feedbacka oso ona da eta horrek bete egiten nau.

**Unai Olaso:** Jendeak asko eskertzen du argazkiak edukitzea, eta, batez ere, argazki politikak izatea. Ez da bakarrik momentua harrapatzea. Niretzat horixe da erronka, argazki politikak ateratzea. Gainera, ANBOTOn argazkilari lez arituko ez banintz,



Lucia Meruelo eta Unai Olaso.

leku askotara ez nintzateke joango: herrietako txupinazoetara, herri bazkarietara, lasterketara... ANBOTOri eskerrak une bereziak bizi izan ditut.

**Baduzue une berezirik gogoan?**

**U.O.:** Unerik biziena oraintsu bizi izan dut. Durangoko jaietan, nire herriko jaietan, txupinazoan udaletzeko balkoian egoteko aukera izan nuen. Niretzat oso berezia izan zen, asko gustatu zitzaidan.

**L.M.:** Nik ere une polit bat bizi izan dut Durangoko aurtengo jaietan. Gazte bazkariara argazkiak ateratzera joan nintzen; taldetxo bati ea ANBOTOrako argazki bat atera niezaiekeen galdetu nien eta euren erantzuna izugarria izan zen. Ilusio ikaragarria egin zien eta neu ere poztu nintzen eurek horrela ikusita.

**Zeintzuk dira zuen ekitaldirik gustukoena argazkiak ateratzeko?**

**U.O.:** Niri asko gustatzen zait jai giroa, jendea oso prest egoten delako beti argazkian agertzeko. Txupinazoak, mozzorro desfileak... bereziak izaten dira, baina gustukoena gazte bazkariak ditut.

**L.M.:** Kirol probak eta dantza

saioak ditut gogoko, normalean argazki politikak irretzen direlako. Gainera, protagonistek asko eskertzen dituzte argazkiak.

**Baduzu anekdota berezirik?**

**L.M.:** Behin Otxandiora joan behar izan nuen ekitaldi bat kubritzera. Etxetik irteteko txirrindulari lasterketa batek harrapatu ninduen eta zain egon behar izan nuen. Otxandiora heldu, han ezer aurkitu ez, jendea galdetu, eta ekitaldia amaitu egin zela esan zidaten. Argazkirik barik bueltatu nintzen etxera.

**Zer mezu emango zenieke irakurleei ANBOTOn moduko tokiko hedabideak babestearen garrantziaz?**

**L.M.:** Gertuko notizien berri euskaraz informatzeko tokikoak ezinbestekoak direla. Gainera, niri interesgarri egiten zait gure hizkeran, euskara bertakotu horretan, irakurtzeko aukera izatea. Nire ustez, ezinbestekoa da tokikoak babestea.

**U.O.:** Luciagaz bat nator, nire ustez ere tokikoak beharrezkoak dira. Eta egiten duzuen lanagaitik eskerrak eman gura dizkizuet, baita guri aukera emateagaitik ere.

Zorionak Anboto

(x) **Doitu**  
TOPOGRAFIA

San Inazio auzunea, 2  
48200 Durango  
Tel.648.05.63.92

Etzerik etxe, auzorik auzo  
Anbotok mila ale eta mila pauso  
Zorionak!

IZURTZA  
UDALA  
Tel.: 945 833 548  
www.izurtza.net



*Zorionak  
Anboto,  
beste hainbeste ale  
atera ditzazuela!*



Elorrioko udala



# Paperezko edizioa bai, euskarri digital ugari ere bai

Diotenez, sorkuntza prozesu oro haren testuinguruak eta garaiak baldintzaturikoa izaten da. Eta esan hori gure hedabide honetara ekarrita, badago zer aztertu, 2001eko azaroan paperezko argitalpen huts modura hasitako hedabideak bidelagun berriak egin ditu-eta urteak joan urteak etorri. *Anboto.org* ataria 2003an sareratu zen lehenengoz; harrezkero, webgunea martxan dabil egunero-egunero hutsik egin barik, eta halantxik jarraituko du aurrerantzean ere. Nabarmenezkoa da sare sozialen aroan euskara hutsean informatzen duen komunikabide honek izandako bilakaera. Facebook eta Twitter (orain X) kontuekin hasi ginen sareetan gure edukiak zabaltzen. Whatsapp eta Telegram gehitu genizkion gero. Instagramen ere bagaude, geroago eta jarraitzaile gehiagoz. Batu zu ere gure sareetara!



**5.099**  
Anboto Komunikabideak

**3.861**  
@anbotokomunikabideak

**4.196**  
@anboto

**1.467**  
688 635 041



Batu gure whatsapp kanalera

**277**  
688 635 041



Batu gure telegram kanalera

m. 688 727 038 - t. 944 055 455  
ekana.es

**EKANA**

Zorionak, Anboto Urte askotarako!

**ENTRENAMENDU PERTSONALIZATUAK**  
Mantentze fisikoa eta osasuna  
Kirol errendimendua  
Kirol berregokitzea

**KIROL MEDIKUNTZA**  
Esfortzu frogak  
Kontsulta kirol-medikoak

**FISIOTERAPIA**

**NUTRIZIOA ETA DIETETIKA**

**LANDAKO ESKOLA PUBLIKOA**

Zorionak, Anboto Urte askotarako!

**Haur eta Lehen Hezkuntza**

T. 94 428 01 74 / M. 615 75 18 43

[www.landakoeskola.org](http://www.landakoeskola.org)

KEEWAY AJP SCORPA PIAGGIO

**MOTOS TABIRA**

KONTZESIONARIO OFIZIALA  
Salmenta · Konponketa · Boutiquea

**DOAKO ASEGURUA ITZULI DA KEEWAY 125CC GUZTIETARAKO**

Tel./Faxa: 94 681 40 68  
motostabira@outlook.es  
[www.motostabira.es](http://www.motostabira.es)

1.000 ale eta mila zorion, Anboto!

Arzubia ind., 10-B pab. MATIENA-ABADIÑO

**Mallabia**

**1.000 ale!**  
**Ez zarete makalak!**  
**Zorionak!**



J.D. DURANGALDEA

Sakon irakurrita batzuetan, gainbegiratu bat emanda besteetan, eskualdean jaio eta kanpoan bizi diren askok euren sorterriko gaurkotasunari jarraitzeko erabiltzen dute ANBOTO. Eurei eskerrak ere bada ANBOTO gaur egun dena.

## Durangaldetik kanpora, ANBOTO gertu

ANBOTOren inguruko komunitatea ez da eskualdera bakarrik mugatzen. Irakurle batzuk Durangaldetik kanpora bizi dira eta astero jasotzen dute alea euren bizitokian. Kanpotik etxekoaren berri jakiteko balio die.



### "Mardarasen omenaldiaren albisteak poztu ninduen. Ondo merezitakoa da"

Rakel Jaio Abendibar iurretarra da eta 20 urtetik gora daramatza Bilbon bizitzen. Anbotokide ere bada.

#### Zergatik jasotzen duzu Anboto etxean?

Batetik, bere sasoiaren Anbotokide egiteko kanpainaren berri izan nuelako eta, bestetik, Durangaldetik gertuago sentiarazten nau bertako albisteak irakurtzeak.

Ezagunen elkarrizketak eta Iurretako albisteak sakonago irakurtzen ditut. Azken aldeko bat aipatzearen, Maider del Rio psikologoari doluaren gainean egindako elkarrizketa. Maider laguna dut. Kristina Mardarasen omenaldiaren albisteak ere poztu ninduen. Txikitatik ezagutzen dut eta ondo merezitako omenaldia da.

### "Tokiko komunikabideek garrantzi handia dute komunitateak trinkotzeko"

Aitzol Mendiola Agirre durangarrak 26 urte daramatza Iruñean bizitzen.

#### Aspalditik zara harpidedun?

ANBOTO sortu zenetik naiz harpideduna. Goitik behera errapasatzen dut. Gogoan dut gure amari egindako elkarrizketa, izekok eta biek Andra Mariko elizpean zuten "El Pórtico" denda histo-

rikoa itxi zenean. Paul Astigarraga osaba ere behin baino gehiagotan agertu izan da. 17 eta 13 urteko semeei sarritan erakutsi izan diet ANBOTO ezagunen bat agertzen bazen, zorion agurretan edo. Tokiko komunikabideek garrantzi handia dute komunitateak trinkotzeko orduan. Beste 1.000 ale egin ditzala ANBOTOK!



### "Ahizpa biok gustura irakurtzen dugu ANBOTO, hango berri jakiteko"

Yolanda Jaio Garitaonandia durangarrak 30 urtetik gora daramatza bere sorterritik kanpora. Las Palmasen bizi da. Han bizi da bere ahizpa Maribi ere.

#### Ahizpa biek irakurtzen duzue ANBOTO?

Bai, ahizpok gustura irakurtzen dugu ANBOTO, hango berri jakiteko. "Hau

edo bestea agertu da" komentatzen diot; ezagunen bat agertu bada edo... haien seme-alabak, urteak aurrera doaz eta! Jubilatua naizenetik gehiagotan joaten naiz Durangora. Hor nagoenean *anboto.org* ere kontsumitzen dut, agendaren berri jakiteko.

### "Hotelera datozen euskaldunak harritu egiten dira euskarazko aldizkari bat ikustean"

Susana Astola Garro durangarra Andorran bizi da ia 30 urtean. Babot izeneko hotel familiarra du han.

#### Sorreratik zara harpideduna, ezta?

Bai. Berbaroko bazkidea nintzen, eta gero, Andorran, ANBOTOKo harpidedun egin nintzen. Dantza munduko albisteak ira-

kurtzen ditut gehien, Txoritxu Alai eta Kriskitin taldeetako dantzaria izan nintzen eta. Jon Saroberena irakurri dut orain, zelan azkenekoz dantza egin duen jaietan. Hotelean irakurgai egoten da ANBOTO. Euskaldunak harrirituta geratzen dira hemen euskarazko aldizkari bat ikustean.







## "Geroago eta gutxiago noa Durangora, eta kontaktua mantentzeko balio dit"

Iñaki Alzibar Arbulu durangarra Gasteizen bizi da 25 urtez. Berbaro sortu zenean bazkide egin zen eta hasiera-hasieratik jasotzen du ANBOTO.

### Zer eskaintzen dizu ANBOTOK?

Geroago eta gutxiago joaten naiz Durangora, eta ANBOTO jaso eta irakurtzea nire sorterriagaz kontaktua mantentzeko modu bat da. 'Akuilua' atala oso gustuko dut, azken orriko elkarrizketa.

Ahaztuko ez dudana albiste bat Andoni Iruarrizagaren heriotzarena da. Kuadrillakoa nuen Andoni. Durangoko herrigintzan makina bat lan egin zuen. Nire kuadrillako gehiago ere agertu dira Anboton: Jone Miren Goenaga, Asier Bilbao eta Ibon Pujana, esaterako. Mundu globalizatu honetan, euskarazko komunikabideak oso beharrezko ditugu. Beraz, zorionak eta urte askotarako, ANBOTO!

## "ANBOTO astekariak ekarpen handia egiten dio euskarari"

Joana Mendiburu Garaizar senperrarra zortzi bat urtez bizi izan zen Durangon. Egun Oiartzunen bizi da.

### Harpideduna eta Anboto Laguna zara. Zergaitik?

Proiektua babesteko naiz bazkide. Horrelako proiektuak aurrera egiteko, ezinbestekoa da bazkideak izatea. Ekarpen txo bat egitea ez da hainbeste kostatzen, eta denen artean dimentsio bat hartzen du. ANBOTO jasota hango berri jasotzen

dut eta Durangogaz loturatxo bat mantentzeko modua da. Lagunak ditu Durangon. Gogoan dut ANBOTO Zornotzara zabaldu zen momentua, esaterako. "Proiektuak hazten jarraitzen du", pentsatu nuen. Egun seinalatu batzuetako albisteek ere ilusioa egiten didate: Durangoko Azoka, sanblasak, sanfaustoak... Orain arteko moduan hazten jarraitzea desio diot Anbotori. ANBOTO astekariak ekarpen handia egiten dio euskarari.



**1.000 ale**  
Ehundaka albiste  
Hamarnaka istorio  
Komunitate bat

**Zorionak, Anboto**



Durangaldeko  
Mankomunitatea  
Mancomunidad  
de Durangaldea



## Durangaldeko udalen babesa ANBOTOren proiektua

2001eko azaroaren 9an ANBOTO martxan ipini zenean, euskara elkar-teen Durangaldeko eragileen babesa eta bultzada bilatu zuten. Udal erakundearen laguntza ere ezinbestekotzat jo zuten. Hartara, 23 urte hauetan euskara hutsezko hedabideak eskualdeko udalen laguntza jaso du. Urteotan ANBOTO profesionalizatzea eta sektorean erreferente izatea helburu hartuta, laguntza bide guztiak beharrezkoak izan dira. Aurrerantzean ere, babes hau garrantzitsua izango da komunikazioaren arloan hedabide honek dituen erronkei aurre egiteko.

Eskerrik asko euskararen normalizazioan hedabideek duten garrantzia aintzat hartzearen.



**"Herritarren borondatek jaio ziren 2001ean, eta, 1.000 aleren ondoren, kemen berdinagaz jarraitzen duzu lanean, 'herritik eta herriarentzat', eta Durangaldeko euskalgintzarentzat ezinbesteko arnagune izanez. Zorionak, Anboto!"**

MIKEL URRUTIA  
ABADIÑO KO ALKATEA

**"Urteak daramatzat ANBOTO irakurtzen, barikuro ez bada, asteburuetan. Beti interesgarriak iruditu zaizkit irakurri ditudan albisteak. Denbora-pasak ere egin izan ditugu familian. Beti daude albistearen ondoan berriari forma ematen eta irakurtze nahi hori sustatzen. Eta hori benetan eskertzekoa da. Zorionak!"**

ENERITZ AGIRRE,  
ATXONDOKO ALKATEA



**"23 urte, 1.000 ale, Durangaldeari euskaraz berbea emoten! Zorionak, Anboto! Gure hizkuntzaren erabilera indartzeko ezinbesteko ekimena da ANBOTO. Bide beretik jarraitu aurrerantzean be. Eskerrik asko!"**

ORLAN ISOIRD  
BERRIZKO ALKATEA

**"Zorionak, ANBOTO, 1.000. alea lortzeagatik! Eskerrik asko urte hauetan Durango eta Durangaldeko herritarrak gertutik eta euskaraz informatzeko egin duzuen lan bikainagatik. Jarrai dezagun elkarrekin euskal komunitatea indartzen!"**

MIREIA ELKOROIRIBE,  
DURANGOKO ALKATEA



**"Lerro honek baliatu nahi dodaz Anboto astekaria zorientzeko, izen be, bere 1.000. alea kaleratzen dau gaur. Gure eskualdeko erreferente, euskera maite eta euskeraz bizi gura dogunentzat. Segi euskal komunitatia sendotzen, eta beste hainbeste ale kaleratu daizuezela!"**

JULENE LAZKANO,  
ELORRIO KO ALKATEA

**"Euskararen ikuspegitik, tokiko hedabideen ekarpena garrantzitsua da, askotarikoa den euskal gizarteari begira lan eginez. Formatuan eta gaietan asmatzea, etengabeko berrikuntzari lotzea da ANBOTOK daukan heldulekurik seguruena euskarazko hiztun-elkartea indartzen segitzeko."**

ERRAMUN OSA,  
GARAIO KO ALKATEA

**"Zorionak ANBOTOKo taldeari 1.000. ediziora iristeagatik! Lorpen horrek zuen dedikazioa, profesionaltasuna eta informazioarekiko eta euskararekiko konpromisoa islatzen ditu. Bihotzez espero dut lanean jarraitzea eta lurretari buruzko informazioa ematea, orain arte bezala."**

OSKAR KOKA,  
IURRETAKO ALKATEA



**"Herritar zein alkate moduan tresna aparta, informatuta egoteko eta informazioa helarazteko. Hurbiltasuna eta euskara dira niretzat ANBOTOren balio erantsiak. Izan daitezela beste 1.000! Zorionak!"**

OIHANE IRASTORZA,  
IZURTZAKO ALKATEA

**"ANBOTO aldizkaria funtsezko zutabea da tokiko informazioa eta euskara indartzeko Durangaldean. Zorionak 1.000. alera heltzeagatik eta eskerrrik asko euskararen aldeko zuen lan nekazezagatik."**

IGOR AGIRRE,  
MALLABIKO ALKATEA







"1.000 ale, mila esker, horrenbeste urtez eta horrenbeste aletan herri txikietako bizitza Durangalde osora zabaltzeagatik. Lekuan lekukoa, gertukoa eta euskalduna izaten jarrai dezazula. Zure alde, topa!"

AINARA OTXOTORENA,  
MAÑARIKO ALKATEA

"Komunikabide handien desinformazioan murgilduta gauden honetan, ANBOTO bezalako proiektuak babesten jarraituko dugu, txikitik eta bertatik herri honen esperantzaren itsasargi izaten jarrai dezaten"

EGOITZ GARMENDIA,  
OTXANDIOKO ALKATEA



"ANBOTOK 1.000. alea kaleratu du. Euskaraz, gertutasunez eta kalitatez, Durangaldearen berri izateko ezinbesteko lana egiten duzue. Hori dela eta, zorionik beroena zaldibartar guztion izenean. Segi aurrera!"

ENERITZ AZPITARTE,  
ZALDIBARKO ALKATEA

"ANBOTO, eskerrik beroena eman gura dizuet gure herriaren ahotsa gure artera ekartzeagatik. Zorionak 1.000. zenbakira iristeagatik, eta jarrai dezazuela bide horretan! Aurrera Anboto!"

AINHOA SALTERAIN  
ZORNOTZAKO ALKATEA



"1.000 ale, zenbaki borobila, erraz esatekoa baina ez egitekoa... Zorionak eta eskerrik asko! Izan ere, Durangaldean ondo informatutako komunitate euskaldun bat eraikitzea lortu dozue, eta hori ez da erronka makala. Orain beste 1.000 aleren bila!"

IDOIA OTADUY,  
MANKOMUNITATEKO  
PRESIDENTEA

**URALDE**  
KLINIKA DENTAL

*Zorionak, Anboto. Urte askotarako!*

667 097 575 - 946 550 055  
info@klinikauralde.com  
www.klinikauralde.com

Uralde 1, behea  
48215, IURRETA, Bizkaia

• ERDI MAILAKO ZIKLOAK  
• GOI MAILAKO ZIKLOAK

**IURRETA**  
Larribide Hesketa

1.000 ale txiki-irri-txakarra Anboto bat eta bakarra! Zorionak!

www.iurretalhi.eus  
idazkaritza@iurretalhi.eus  
Tel.: 944 66 88 00

Arriandi Industrialdea, P-1  
48215 IURRETA - BIZKAIA  
estacionservicio@arribide.com  
946 818 381

**ARRIBIDE**  
GASOLINDEGIA

*1.000 ale eta mila esker. Zorionak, Anboto!*

**MAPFRE**

**VANESSA BERAZA**  
Aseguruak eta inbertsioak  
MIFID II

*Zorionak, Anboto Urte askotarako!*

946 582 448 - 679 182 536  
Kanpokale, 10 ELORRIO  
vruizca@mapfre.com



# "ANBOTOk eskualdeko informazio beharretara egokitzen jakin du"

ISAAC AMEZAGA LARRAZABAL BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Amezagak urtebete baino gehiago darama Bizkaiko tokiko euskarazko hedabideak bultzatzen. Aldaketa sasoia dator sektorera, eta horrek tokikoei ere eragingo die

Jone Guenetxea DURANGALDEA

Isaac Amezaga Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendariak ondo baino hobeto ezagutzen du Bizkaiko euskarazko tokiko hedabideen egoera.

**ANBOTOk 1.000 ale egin ditu. Zelan baloratzen duzu ANBOToren ibilbidea?**

Ibilbide oparoa da ANBOTOrena. Aberasgarria bai eskualdearentzat, bai barruko langile-taldearentzat. Batetik, ANBOTOk urte honeetan zehar jakin izan dau egokitzen eskualdeak informazio-beharrak dirala-ta dituan beharrezanetara, holango egokitzapenak eginda. Bestetik, nabarmentzekoa da ANBOTO kalera ateratzeko egunero lanean diharduten pertsonen egindako ahalegina, arestian aipatutako aldaketa horreei guztiei behar dan lez erantzuteko egin behar izan dituan aldaketak egin da bezelako aldizkariaren barruan: izaera juridikoa aldatu, kudeaketa aurreratuan hasi eta ibilbide hori sendotu eta finkatu... **Bizkaiko tokiko hedabideak hazten dabilta apurka-apurka. Zeintzuk dira indarguneak? Eta ahulguneak?** Ahulguneak aipatuko dodaz lehenengo, modu positiboan amaitzearren. Ahulgune da hedabide batzuen egitura bera, egitura horrek ez dau laguntan hedabideen profesionaltasunean.



Isaac Amezaga.

Beste ahulgune bat sektoreak berak dituan edo izan leikezan zalantzak dira, ez bakarrik Euskal Herrikoak ezpada mundu osokoak: hornigaien garestitzea, pertsonen informazioa jasotzeko daukiezan ohiturak aldatzea, eta gurean, bereziki, euskarazko kontsumoak dituan zailtasunak. Ahulguneotako batzuk, baina, indargune bihurtu ditue gure hedabideetako batzuek, ANBOTOk berbarako, argi izanda merkatuan eta gizartean zer dagoan, zeri egin behar deuten aurre eta euren egiturak zein

lan egiteko moduak horretara egokituz. Sano modu profesionalen. Eta hain modu profesionalen ez diharduten hedabideen artean be indargune izan leiteke argi izatea zer gura daben, argi izatea txikira edo handira jokatu gura daben. Eta txikira jokatu gura badabe, euren lana horretara egokitzea. Handira jokatzen dabenek Bizkaian dagoaneko egin daben/dozuen lez.

Indargune be bada hedabideok erakundeen aldetik daukien laguntza. Era berean, sinergiak inportanteak dira, eta inportan-

tea da komunikabide handi-goakaz eskutik joatea, alkarre-ri lagunduz, irakurle-entzule-kontsumitzaileak hobeto informatu izateko, eta eragile guztiak eroso sentiarazoten dauazan markoa zehaztea.

**Diru laguntza eredu berriak lagunduko du aurrerapausoak ematen?**

Hori da asmo argia behintzat, aurrerapausoak emotea. Horretarako adostu dira hainbat alderdi hedabideekaz eurekaz, eta kontrasteak be egin dira. Hau da, eredu adostua da guztiontzat barria dan eredu hau, eta guztioi zertan egokitu eta ikasi eskatuko deusku. Aldaketa izango da hedabideentzat, euren kudeaketaz gogoeta eskatuko deutse, baina aldaketa izango da erakundeentzat be, goitik behera iraultzen daualako diru laguntzen orain arteko eredu. Hori bai, eredu barriak ezin ditu atzean itxi txikira jokatu gura daben hedabideak, haiek be erakundeon zein gizartearen errespetua, babesa eta aitortza behar dabe. Halanda be, BFAREN ikuspuntutik, gure gizartearen ikuspuntutik, komunikabide sendoak eta autonomoak gurako geunkez, hau da, euren burua sustengatzeko gai diren komunikabideak. Etorriko jakezan erronkai aurre egiteko gai izango diranak: teknologikoak, langileai lotutakoak... Euren ingurunean xertatuago egongo diranak eta, halan, alkar elikatzeko modua izango dabenak.

**Urtebete baino gehiago daramazu karguan. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendaritzan zeintzuk dira legegintzaldi honetarako ildo nagusiak?**

Helburu nagusia Bizkaia euskaldunago bat izatea da. Euskara presente egotea gizarte-harremanen eremu guztietan:

hedabideak, arlo sozioekonomikoa, aisialdia, kultura eta kirola, gazteak, teknologia barriak, etorri barriak, familia transmisioa... eta, era berean, hizkuntza-eskubideen zaintza. Bada, horretarako guztirako, batetik, Euskararen Erabilera Normalizatzeko VII. Plana diseinatu eta martxan jarri dogu Foru Aldundian, foru-langileen inplikazioagaz. Bestetik, hizkuntza-plangintza eta -normalizazioa bultzatuko dogu foru-sektore publikoan (enpresetan zein foru-erakundeetan). Ganera, Bizkaiko udalen kasuan, udal-eremuan euskararen erabilera sustatzen laguntzen jarraituko dogu. Bizkaiera jagoteak be aparteko garrantzia dauka gure zereginean. Horretarako, erakunde publikoen, pribatuen nahiz herritarren arteko alkarlanean sinisten dogu eta balioan jarri behar leiteke egiten dan guztia. Gure eraikinak ezagutzera emoteak be aparteko garrantzia izango dau euskararen sustapenean ekiteko. Besteak beste, esan beharra dago iaz erabarritu zan Euskararen Etxean Euskararen Interpretazio Zentroa daukagula, eta gurako geunke zentro hori erreferente izatea Europako gainerako hizkuntza gutxituentzat. Horren harira, kasurako, EHUUn irailean hasi eta lurralde osoan zehar ibiliko dan erakusketa ibiltari bat antolatu dogu.

**"ALDUNDIAREN IKUSPUNTUTIK, KOMUNIKABIDE SENDOAK GURAKO GEUNKEZ"**

Zorionak, Anboto Biba zuek!



**AROTZERIA OROKORREAN**

Aratz Salazar Bilbao  
Tel.: 647 21 07 88 - arotxin@gmail.com  
ELORRIO Bizkaia

**HONTZA EXTREM**  
EL HONTZAIKO ADONIAZ FANZIA



Zorionak, Anboto Urte askotarako!

Tel.: 633 468 947 / www.hontzaextrem.com



# "ANBOTO ezinbestekoa da Durangaldean"

**TXABI EMALDIA FERNANDEZ** XIBERU TABERNAKO JABEA

Txabi Emaldia (Zornotza, 1980) iaz batu zen Anbotokide kanpainara, ANBOTO tokiko euskarazko proiektua maila pertsonalean zein profesionalean babestuz.

**Aitziber Basauri** ZORNOTZA

Xiberu Taberna Anbotokide sareko kidea da iaztik. Txabi Emaldiaren ustez, oso garrantzitsua da ANBOTOn moduko euskara hutsezko proiektuak sostengatzea. **Zergaitik erabaki zenuen Anbotokide sarera batzea?**

Xiberun hainbat egunkari dago eta garrantzitsua da euskarazko egunkari edo proiektuek ere euren lekua izatea. Berriak harpideduna naiz, eta ANBOTOkoa ere bai. Lehenengo egunetik jasotzen dut ANBOTO etxean eta tabernan. Gainera, Anbotokide ere banaiz; maila pertsonalean eta profesionalean babesten dut proiektua.



Txabi Emaldia Zornotzako Xiberu tabernan.

**Zornotzan eta Durangaldean, zergaitik da garrantzitsua ANBOTOn moduko proiektu bat izatea?**

Hurbileko albisteak kaleratzen ditu, euskara hutsean. Garrantzitsua da hori. Eta taberne jende asko batzen dute, eginkizun sozial bat betetzen dute. Bada, bezeroei euskaraz irakurtzeko aukera ematea oso garrantzitsua dela uste dut.

**Anbotokide egitera animatuko zenuke?**

Bai. Denok gara euskararen babesle eta euskararen aldekoak, teoriarik. Baina hori praktikara eramateko, norberak bere aletxo ipini behar du. Euskara hutsean kaleratzen den astekari bat bultzatu eta lagundu egin behar dela uste dut, harpidedun edo Anbotokide eginez.

**Zure ustez, zein funtzio betetzen du ANBOTOn proiektuak Durangaldean?**

Oso funtzio sozial handia betetzen du, eta, euskaraz kaleratzen den astekaria izanda, eginkizun garrantzitsua du euskara bultzatzen. Ezinbestekoa da gurea lako eskualde batean horrelako proiektu bat izatea. Berria egunkaria dagoen moduan Euskal

Herrian, Durangaldean ANBOTO izatea garrantzitsua da.

**Zelan ikusten duzu ANBOTO? Zer duzu gustuko?**

Gustatzen zait ANBOTO irakurtzea. Elkarrizketa edo albisterei bat gustuko badut, denbora hartzen dut irakurtzeko. Eta, bestela ere, beti ahalegintzen naiz begiratutxo bat emten, gainetik bada ere. Hurbileko elkarrizketak gustatzen zaizkit gehien. Kontrazaleko elkarrizketak gustura irakurtzen ditut. Baita hurbileko albisteak ere, politikazkoak, gizarte arlokoak edo kiroltakoak.

**Xiberuko gosariak arrakasta handia dute Anbotokideen artean. Gosari asko banatu duzu...**

Bai! joan zen asteburuan Iurretako lagun bi etorri ziren, eta Atxondotik ere etorri dira. Zornotzan ezagutzen dute Xiberu, baina Durangaldeko beste herri batzuetan ere ezagutzeko modua da. Anbotokide izateak hainbat abantaila du. Pozik nago.

**Bese ezer gehitu gura zenuke 1.000. alea dugun honetan?**

Zorionak! Ea beste 1.000 ale kaleratzen dituzuen. Ezinbestekoa da, benetan.

Zorionak Anboto!

**Forjas de Berriz**  
GRUPO BERRIZ DE FORJA

Pieza berezien forjaketa beroan

Pol. Ind. Tabernabarri N° 1A IURRETA  
946 826 520 [www.forjasberriz.com](http://www.forjasberriz.com)

**MARKIEGI**  
ELEKTRIZITATEA - ARGIZTAPENA

*1.000 ale nuskara zabaltzen  
Eskerririk asko eta zorionak Anboto*

Tabira, 3 DURANGO  
946 203 520  
[markiegi@markiegi.com](mailto:markiegi@markiegi.com)  
[markiegi.com](http://markiegi.com)

**GA**

**Gaztelu-Iturri**  
ARKITEKTURA

OBRA BERRIA · ERREHABILITAZIOA  
BERRIZTATZEA · BARNE DISEINUA

Zorionak Anboto!

Tel.: 946 509 194 | [gazeluiturri.com](http://gazeluiturri.com) | Askatasun-etorbidea, 17



Jone Guenetxea DURANGALDEA

ANBOTOk profesionaltasunera emandako jauziagaz zerikusia handia izan du Tokikom. Iban Arantzabal tokiko euskarazko hedabideen bateraguneko presidentea da, baita Goienako zuzendaria ere.

**ANBOTOk 1.000. alea kaleratu du. Zer datorkizue burura?**

Ezin nezake burutik kendu beste mila zenbakitan ere jardun beharko duela. Galderari erantzuten diot Trumpek AEBetako hauteskundeak irabazi dituen honetan. Hedabideak eta demokrazia lotuta daude eta bistakoa da tokiko hedabideak desagertzaren diren lekuetan eskuin muturrak lurzatia irabazten duela. Kazetaritzarik ez dagoenean komunikazio-propaganda gailentzen da eta lekuan bertan egiten den kazetaritza oso inportantea da demokraziarako: gertukoena delako, komunitate baten parte delako, sinesgarria delako eta zintzotasuna duela oinarri. Burura datorridana da lan handia duela ANBOTOk egiteko, eta Durangaldeak behar duela ANBOTO.

**Euskal hedabideen ekosistema zein egoeratan dago momentu honetan?**

Beti gehiago nahi. Ez honetan dihardugunok aberasteko, edo hegoak zeruratzeko, edo beste barik handiago izateko. Ez, gure egitekoetan eraginkorragoak izan behar dugu, eta jende gehiagorengana heldu kazetaritza produktu kalitatezkoekin.

**Diru laguntzen eredu aldaketak datoz. Zein balorazio egiten duzue?**

Eusko Jaurlaritzako eta Aldundietako diru laguntza eredu goitik behera aldatu da, bai. Eta aldaketa hau administrazioek eta sektoreko euskal he-

## "Tokiko hedabideak desagertzaren diren lekuetan eskuin muturrak lurzatia irabazten du"

IBAN ARANTZABAL TOKIKOMEKO PRESIDENTEA

Iban Aranzabalek hedabideen eta demokraziaren arteko lotura nabarmendu du ANBOTOn 1.000. alean



Iban Arantzabal. TOKIKOM

dabideek batera egin dugu. Horrek garrantzi handia du eta sistema bera adostua da. Eskertzea dagokigu administrazioetatik egin den ahalegina. Eredu berriak kudeaketak eta kazetaritza kalitateak hartu dute pisua, eta norabide egokia dela uste dut, gure hedabideak gizartearen onartuak eta irakurri-ikusentzunak izan daitezten.

**Gaur egungo hedabideen testuinguruan zelan daude posizionatuta tokiko hedabideak?**

Gertutasuna urrea da; ez gutxiaren eskuetan dagoelako, desiratua delako baizik. Anbotozaleek gertuan duten horren berri jakin nahi dute, eta kazetaritza irizpidez kontatzea. Horregatik du ANBOTOk auzientzia handia. Kazetaria irakurleen lagunago izan behar da; ez horrenbeste elkarrizketatuaren lagun. Badaude hedabideak ildo jakinetatik informatzen dutenak edo lagunaren lagunak. Tokikoak, aldiz, de-

nendako urre izatea du helburu; aberastasuna banatzea on den legetxe informazioa ahalik eta etxe gehienetara heldu behar da. ANBOTOn kasuan, euskaraz eta euskaratik jardunda. **Tokiko hedabideek zein ekarpen egiten die gizarteari?**

Mundu ikuskera bat helarazten du tokiko hedabideak: gertukoa, zabalak, ikuspuntu askotarikoa, kohesionatzailea, ideologia demokratiko denak kabitzen direna, eta Tokikomeren ka-

suan Euskal Herria duena lan esparru. Gu euskal izatearen partetxo bat gara, beste hainbat diren eran, euskal sortzaileak kasu. Gure aletxoak jartzen dugu kalitatez jardunez. Eta ez duguna egiten da irakurleari zer pentsatu behar duen esan. Zergatik? ANBOTOn irakurlea argia delako eta iritzi kritikoz jokatzaren badakielako. Tokikoaren lana irakurketa-tresnak ematea da: testuingurua, sinesgarriak diren datuak, kontrastea... Eta baita askotariko iritziak ere kolaboratzaileen bidez. Hartzailereen esku norbere iritzia egituratzea eta egien bilaketak.

**Zeintzuk dira momentu honetan hedabideek dituzten erronkak? Eta tokiko hedabideenak zeintzuk dira?**

Lurralde mugatua lan egiten dugu. Uste dugu gure bezeroa ondo ezagutzen dugula eta ez da guztiz gezurra. Hala ere, Anbotokide bakoitza hobeto ezagutzea da gakoa. Hedabide handi guztiak ari dira horretan eta tokikook sartuta gaude lan egiteko molde berriak. Zertarako? Zerbitzu hobea emateko, pertsonalizatuagoa. Eta zein da gure konpromisoa? Zintzotasuna. Datuak kudeatuko ditugu, baina ez edozein modutan. Legeak betez bai, eta baita pribatutasunean harantzago joanez ere. Zintzo. Hortxe erronka eta konpromisoa.

1955an sortua

**GALLASTEGI**  
harategiak

Zorionak ANBOTO

**ZALDIBAR**  
Zalduasolo, 8  
946 827 038

**DURANGO**  
Antso Estegiz Zumardia, 1  
946 812 247

[www.gallastegiharategiak.eus](http://www.gallastegiharategiak.eus)

1.000 ALE  
MILA ESKER  
MILA ZORION

Tel.: 946 816 393  
[www.garai-udala.eus](http://www.garai-udala.eus)





C1 mailako ikasleak, Durangoko AEKn.

# AEKko ikasleen lanabes praktikoa... eta gertukoa

Durangoko AEKko ikasleek ANBOTOkoko iritzi artikulua darabiltzate euskara lantzeko tresna modura. Paperean irakurritakoetatik hasita, euren iritzia garatzen dute, gero aurkezpenak prestatzeko. Gainera, astekariaren gertutasuna eskertu dute

**Ekaitz Herrera** AEK

*Euskara praktikoa* dio AEKren goiburuetarik batek, eta Durangoko Abarrak euskaltegia behintzat halakoxeak izaten dira klaseak: praktiko-praktikoak. C1 mailako ikasleak testuak eta ahoz-kotasuna lantzen topatu ditugu Miren Bihotza Erzilla irakaslearen gidaritzapean, zer eta ANBOToren ale batzuk esku artean! Izan ere, halantxik aitortu dute AEKko ikasleek: tarteka-tarteka ANBOTOkoko artikulua baliatzen dituzte euskara lantzeko tresna modura. "Batzuetan iritzi artikulua irakurtzen ditugu lehenengo, eta ahoz-kotasuna lantze aldera gure iritzia partekatzen dugu gero", azaldu du Alex Diez ikasleak. "Hizkuntza aldetik, guretzat egokia da ANBOTO. Iritzi artikulua lantzen ditugu gehienbat, gero aurrez aurre egin beharreko aurkezpenetan gure iritzia garatzeko", gaineratu du Erzilla irakasleak.

Ikasleek estimu handitan duten beste ezaugarri bat astekariak eskaintzen duen gertutasuna da. "ANBOTOrri eskerrak gure eskualdeko albisteen berri izaten

dugu. Artikuluak batuan idatzi-ta daude, baina mendebaldeko euskarari loturiko aldaerak ere badaude testuetan zehar, eta hori aberasgarria da. Gainera, beste egunkari orokorretan ez da gure herrietako albisterik sarri agertzen. Baina ANBOTO astero-astero kaleratzen denez, gure eskualdean gertatzen dabilenaren berri izaten dugu, Durangon, Elorrioren zein Otxandion. Eskertzekoa da", azaldu du Jose Luis Quesada ikasleak. ANBOTOk AEKko ikasleei eman, eta AEKko ikasleek ANBOTOrri eman. Ba ote dago hori baino euskara praktikoa gorik?

**Kurutziagan ere bai**

Ume eta gazteen artean euskarazko hedabideen lana ezagutarazteko eta irakurzaletasuna bultzatzeko ekimena martxan dute Kurutziaga Ikastolako Euskara Taldean. Gaztetxo Taldeko LH6. mailako kideek ANBOTOkoko aleak banatzen dituzte LHko eta DBHko geletan. Hedabide honentzat transmisioa lantzea eta sinergiak sortzea dira proiektu honen punturik garrantzitsuenak. Bejondeizuela, gazteok!



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA



**Jardunaldi Pedagogikoak**

**TXIKIAK HANDI EGITEKO HEZKUNTZA OSOA**

IZEN-EMATEA ETA INFORMAZIO GEHIAGO: [www.andramarizomotzakolikastola.eus](http://www.andramarizomotzakolikastola.eus)

**AZAROAK 20**

**Zelaieta Zentroa 17:30**  
(Familia zein profesionalentzat)

**"Hiztun kontziente, koherente eta kompetenteak helburu"**

**17:30-17:35** Herrera

**17:35-18:40** Hitzaldi nagusia- Kike Amonarriz

**18:40-19:00** "Pulunpa (e)ta Xin" harrera eta murgiltze plan-  
traia Larrozea (Seber Altube ikastola)

# Zorionak!

Jarrai dezazuela, beste hainbat aletan, komunikazio munduari egiten diozuen ekarpena sendotzen!





# "Guretzat pozgarria da ospakizunen parte izatea"

**KARMELE ELEXPE ZARATE** GOZATU GOZOTEGIKO ARDURADUNA

Durangoko Gozatu gozotegiak urteak daramatza ANBOTOGaz lankidetzan. Astekariak pastel bat zozkatzen du hamabostean behin, argitalpeneko zorion agurren artean

**Ekaitz Herrera** IRAGARLEAK

Karleme Elexpe iurretarra Gozatu gozotegiko arduraduna da. Eragileen arteko lankidetzari ipini du adibide modura denok aurrera egiteko.

**Hamabostean behin zozkatzen ditugun pastelen irabazleak pozozik etortzen dira gure erredakziora, pastela eskuratzeko txartelaren bila.**

Guretzat ere pozgarria da hori. Bizitza honetan dena ospatu behar da. Urtegunak zein zorioneko amaiera duten erronkak. Triste gaudenean ere, ospakizunak behar ditugu bizitzari bizipoza emateko. Anbotoko onuradun asko bezero ditugu.



Karme Elexpe, Gozatu gozotegian, pasta kaxa bat eskutan.

Pozarren etortzen dira pastelaren bila.

**Izan ere, gozoak zein gozokiak lagungarriak dira bizitza ospatzeko?**

Ospakizun handiak, bazkariak, afariak... beti amaitzen ditugu mokadu gozo batez. Gozoki horiek ospakizuna handia den seinale izaten dira, hain zuzen ere. Ospakizunak zerbait gozoa janda amaitzen ditugu, eta horixe da gure lana. Herritarren ospakizunetan sartzen gara. Niretzat oso pozgarria izaten da mahai horren parte izatea. Nahiz eta gu geu ez garen modu presentzian hor egoten, gure ekoizpenak, gure lana, ospakizunetan daude. Gauza handia da hori.

**ANBOTOk bere 1.000. zenbakia kaleratu berri du. Gu geu ere ospakizunetan gaude.**

1.000 ale! Ez zarete makalak, gero! Garaiotan, eremu digitala nagusi dela, asteroko argitalpenari eustea egundoko erronka da. Meritu itzela duzue, aupa ANBOTO! Zorionak gure partez ere. Hor egongo gara, zuen ospakizunetan.

**Dena dela, ospakizunetan murgilduta dagoen bakarria ez da gure**

**astekaria. Gozatu gozotegia ere zorioneko dago. Establezimenduak 12 urteko ibilbidea bete berri du.**

30 urte bete dira nire lehenengo gozo-denda zabaldu nuenetik, baina oraingo honek, Gozatu, hamabi urte egin berri ditu. Badira urte batzuk. Gozatu gozotegian proiektua indartu gura dugu. Hau da, ogi ona daukagun arren, gozotegian sasko gura dugu. Klean denda bat urterik urte zabalik mantentzea ez da lan erraza. Dendari txikiok enpresa handiak ditugu lehiakide. Ausart eta gogor lan egin behar izaten dugu.

**1.000. zenbakia ospatzeko, gozo-kaxa bat eskatuko dizut. Baduzu gomendiorik?**

Era askotako gozokiak egiten trebatu gara, eta pastekin arrakasta berezia lortu dugula iruditzen zait. Mani&CO izeneko pastak, adibidez, Euskadiko pastarik onenaren saria irabazi zuen apirilean. Bestalde, era askotako pastak saltzen ditugu kaxatan. Mugurdi marmeladagaz egindakoak, gurinezkoak eta kokozkoak, kafeagaz eginikoak, intxaurdunak eta kaneladunak... proba itzazue!



**BERRIZKO UDALA**  
Tel.: 946 824 036  
www.berriz.eus

# BIZI BERRIZ EUSKARAZ!





# "ANBOTO banatzen ez dago aspertzeko astirik"

**JONE GUENETXEA ETA OIER MAEZTU, ZUZENDARIA ETA BANATZAILEA. AMA-SEMEAK** Amak urte asko daramatza ANBOTOk zuzendari. Semea hasiberria da aleak etxerik etxe banatzen. Belaunaldien arteko transmisioaren adibide dira

**Joseba Derteano** ABADIÑO

Bariku eguerdia da ANBOTOk erredakzioan. 16 urteko semeak presa du, 300 bat ale Durangon banatzeko zain dituelako. Ama lasaiago dabil, asteko alea dagoeneko esku artean duela, hurrengokoa prestatzen.

**Oier, zergaitik hasi zara ANBOTO banatzen?**

**Oier Maeztu:** Txikitatik ezagutzen dut ANBOTO. Betidanik entzun dut etxean. Umetako akorduak ditut, ANBOTOk erredakzioan, ama bisitatzen. Banekien 16 urteaz ANBOTO banatzen hasi nintekeela eta niretzat naturaltasunez etorri den zerbait da.



Oier Maeztu eta Jone Guenetxea, Anbotoko erredakzioan.

**Pentsatzen zenuen moduko lana da?**

**O.M.:** Aspergarria izango zela pentsatzen nuen, baina ANBOTO banatzen ez dago aspertzeko astirik! Zerrenda hartu, ibilbidea ondo planifikatu, musika ipini eta bizi-bizi ibiltzen gara.

**Jone, nork esango zizun semea lankide izango zenuenik.**

**J.G.:** Benetan ere! Oierrek umetatik ikusi du Anboto zer den, zelan lan egiten dugun eta guretzat zer esan gura duen. Bere lehenengo lan esperientzia ANBOTOn izateak ilusio handia egiten dit. Ardura apur bat ere banuen, erantzukizunez arituko ote zen, buzoirik buzoiko banaketa ez delako lan erraza. Baina oso pozik nago ardura handiagaz hartu duelako eta oso banatzaile ona delako.

**Oier, ANBOTOk zuzendaria zure ama izatea presio erantsia da?**

**O.M.:** Ez dut presiorik sentitzen. Badakit nire lana ondo egiten badut ez dela arazorik egongo. Nire lehenengo lanean ama ondoan izateak lagundu egiten dit. Lehenengo banaketan nigaz etorri zen. Ama ondoan izateak lasaitu egin ninduen. Azken

batean, banaketan kontuan hartu beharreko gauza txiki asko dago. Denboragaz martxa hartzen da eta errazagoa da.

**J.G.:** Ez zidan ezer egiten utzi! Zerrenda esku artean hartu eta txukun-txukun bete zuten bere lana.

**Zein da amak eman dizun aholkurik onena?**

**O.M.:** Trankil hartzeko eta arduratsua izateko esan dit, inor kexatu ez dadin. Bestela, gero etxean entzun behar!

**J.G.:** Kontua da gure lanak ez duela ezertarako balio banaketa sareak ANBOTO harpidedun bakoitzaren postontzira ondo eramaten ez badu. Banatzaileen lana oso inportantea da, eta sarritan ez da behar den moduan baloratzen. Beste aholku bat ere eman nion: moduak zaintzeko. Tinbrea jotzean adeitsua izateko, eta, jakina, lehenengo berba beti euskaraz!

**Oier, ANBOTO banatu bai, baina irakurri?**

**O.M.:** Lehen baino gehiago. Gainbegiratu bat, beti. Orain gutxi Oihana Azkorbebeitia ikusi nuen azalean; badakit nor den eta elkarrizketa irakurri nuen.

**FAMILIA GARA**

Elkarbanatuz, eikarlanean.

**KONPROMISOA GARA**

Gure inguruarekiko eta munduarekiko.

**HEZKUNTZA GARA**

Aktiboak, berritzaileak, inklusiboak eta humanistak.

**DURANGO GARA**

Eraginez, sortzaileak izanez.

Zorionak Anboto, euskararen alde egindako guztiagatik!

**pedrojuanena**

**JATETXE-ERRETEGIA**

SAN ANTONIO, 1.  
48.240 BERRIZ BIZKAIA  
TEL: 94.682.62.46

Etxerik etxe, auzorik auzo  
Anbotok mila ale eta mila pauso  
Zorionak!

**SERRATU S.L.**

*Zorionak, Anboto Diba zuek!*

**Galdaragintza eta itxierak**  
*Enpresetan mantentze-lanak*

Astola, 48 ABADIÑO - Tel.: 946 201 837  
serratu@serratu.com - www.serratu.com



**10000**  
**esker**

 **anboto**

